

## Danok-Kide elkarteak eta Udalak urte baterako ituna sinatu dute

■ Musika kontzertuak eta zinema zikloa hartzen ditu bere baitan bien arteko hitzarmenak

Danok-Kidek eta Lasarte-Oriako Udalak urtebeterako hitzarmena sinatu zuten atzo. "Musika kontzertuak eta zinema sozialeko zikloek Lasarte-Oriako herritarrentzat duten interes kulturalari errepikatuz eta baliabide tekniko, material eta ekonomikoak jarrita ekitaldi horiek hobetzeko aukera dagoela ikusita" etorri da bi erakundeen arteko akordioa.

Danok-Kidek antolatzen dituen musika kontzertuak batetik, eta Zinema Sozialeko Zikloa bestetik, hartzen ditu bere baitan itunak. Kontzertuei dagokienez, Udalaren Kultura Departamentuak diruz lagunduko ditu, "balidin eta haren kostuak entitate antolatzaileak aurreikusitako aurrekontua

gainditzen badu." Era berean, kontzertu horietako batzuk kultur etxeko auditorioan egingo dituzte, antolaketa zailtasunek, instrumentuzko musika motak edo kontzertu emailek hala eskatzen badute. Normalean Ama Brigitarren Komentuan egin ohi dituzte kontzertu horiek.

Zinema Sozialeko Zikloari begira, Kultura Departamentuak ordainduko ditu elkarteak aukeratutako filmak, autore-eskubideen zerga barne. Zinema aretoa, proiektzioarako ekipamendua eta pertsonal teknikoa ere Udalaren kargu izango dira.

Atzo sinatu zuten ituna abendura artekoa da, baina urtero berrituko dute bi aldeak ados egonez gero. •



Ana Urchueguia, alkatea Danok Kide elkarteak Jose Luis Navarro eta Endika Amilbiarekin.



Kultur etxean aurkezpena egiteaz gain, martxoaren 27ra arte, Udalak liburutegiko sarreran ordenagailuak ezarri ditu herriarrek maketa ikus dezaten .

## Etorkizuneko Lasarte-Oria aurkeztu dute maketa birtualean

Ana Urchueguia alkateak, J. M. Eliceigi udal arkitektoak eta Borja Barrutiabengoa aparejadoreak Lasarte-Oriako hiri antolamendurako Arau Orokorren maketa birtuala aurkeztu zuten Manuel Lekuona kultur etxeko hitzaldi aretoan.

Herritar ugari bildu ziren etorkizuneko udalerriak izango duen itxura ezagutzera. Izan ere, Lasarte-Oriako hirigintza proiektuak, Loidi-Barren, Okendo edo Zabaleta Berri esate baterako, herriaren eraldaketa suposatuko baitute.

"2015-2020ko Lasarte-Oria prestatzen ari gara," azaldu zuten Lasarte-Oriako alkateak. "Maketa hau guztientzat lan

tresna izatea nahi dugu," adierazi zuten eta zera atxiki: "lan asko egin behar izan da proiektua aurrera eramateko eta eskerrik eman nahi diegu bertan parte hartu duten guztiei."

Honetaz gain, liburutegi sarreran ezarri diren ordenagailuetan ere jendea bildu zen udaletxeko web orrialdean, www.lasarte-oria.org, dagoneko ikusgai dagoen maketa birtuala ikusteko. Aplikazio berri honetan proiektu bakoitzeko hegaldi moduko ibilbidea egiten da eta argazkiak eta mapak ikusi ahal dira.

Honetaz gain, arau subsidiarioen mapa interaktiboa ere atxiki da web orrialdera. •

### ALBISTEA ■ 4


**Autobus konpainia eta Udalaren arteko hitzarmena euskara plana abian jartzeko**

### ALBISTEA ■ 5

**Oinatz taldearen hurrengo irteera Etxalar-ko usategitara**

### KIROLA ■ 6

**Herriko gimnasia erritmikoa lehiaz lehia ari da**



## SUGATE

Sukaldeak

- Gremioen koordinazioa
- Ordenadore bidezko diseinua
- Konpromisorik gabeko aurrekontuak
- Horma- armairuak
- Marka guztietako etxetresna elektrikoak



vegasa  
Beti lehenengo egunean bezala



plan renove+ %10 desk.

Pintore kalea 5 • Tel./faxa: 943 361471 • LASARTE-ORIA  
www.sugate.net

## Zorion-agurrak



**Irene**

Zorionak zure urtebetetzean. 9 muxu handi guraso eta familia osoaren partetik. Ondo pasa



**Ainhoa**

Zorionak sorgina. Ondo pasa zure urtebetetzean. Lagunen partetik



**Nahia**

Zorionak Zuk bi urte eta guk denon partetik bi mila muxu



**Karlos**

Zorionak aitaxo, Nerea eta familiaren partetik.



**Eñaut**

Zorionak lazтана! Bost muxu txokolatezko Eneritz eta gurasoen partez.



**Naia**

Zorionak Naia!! 6 urte bete dituzu printzesita!! Muxu asko. Sandra.



**Noa**

Zorionak Noa!!! 10 muxu oso handi polita! Sandra.



**Nara**

Zorionak!! Muxu asko zure lehenengo urtebetetzean!! Aitaxo, amaxo eta Sandra.



**Andoni**

Zorionak Andoni. 4 muxu goxo goxo! Ama, aita eta Alaznaren partetik.



**Aimar**

Zorionak aiton-amona eta familiaren partetik. Muxu bat eta ondo pasa.



**Naia eta Iker**

Zorionak! Naiari 6 muxu handi eta Ikerri 2! Ondo pasa aiton-amona, guraso eta familiaren partetik.



**Leire**

Zorionak printzesa! Hiru muxu handi zure lehengusina Albaren partetik.

## Guardiak

### Ostrala, 13

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6  
Tel.: 943 363549

### Larunbata, 14

De Miguel, Kale Nagusia 32  
Tel.: 943 371151

### Igandea, 15

De Miguel, Kale Nagusia 32  
Tel.: 943 371151

### Astelehena, 16

Urbistondo, San Frantzisko I  
Tel.: 943 366567

### Asteartea, 17

Orue, Jaizkibel plaza 2  
Tel.: 943 362652

### Asteazkena, 18

De Miguel, Kale Nagusia 32  
Tel.: 943 371151

### Osteguna, 19

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6  
Tel.: 943 363549

## Telefonoak

### Osasuna / Larrialdia

Osasun Zentroa ... 943 007960  
DYA ... 943 464622  
Gurutze Gorria ... 943 363953  
Udaltzainak ... 943 362442  
Ertzaintza ... 943 288888  
SOS Deiak ... 112

### Udala

Erregistroa ... 943 376055  
Euskarako Zerbitzua 943 376184  
Kiroldegia ... 943376182  
Kulturetxea ... 943376181  
Bakezko epaitegia ... 943371629  
Zerbitzu Sozialak ... 943376179  
Zentro Zibikoa ... 943363958  
KIUB ... 943361605  
Udal euskaltegia ... 943361621  
Obrak eta zerbitzuak ... 943 376180

### Jaiotzak

Oier Arruti Oyarzabal,  
martxoaren 7an  
Mario Amantegui Fernández,  
martxoaren 3an  
Jon Iraola Ado,  
martxoaren 2an

### Heriotzak

Francisca Castro Molina,  
martxoaren 3an 102 urte zituela

## Azoka txikia

### Eskaintza inmobiliarioak

• Logela bat alokatzen da pisu partekatutako batean. Alokairua 300 eurotako da. Harremanetarako zenbakia, 627 556 932.

• Lasarte-Oriako zentroan pisu bat alokatzen dut. Harremanetarako zenbakia, 686 674 552.

• Lasarte-Oriako zentroan garajea alokatzen dut. Harremanetarako zenbakia, 686 674 552.

• Landak/Vieux Boucau-n (Le Boulanger urbanizazioan) 4 pertsonentzako estudio bat alokatzen da Aste Santuan eta Pazko astean. Tel.: 943 370534, gaeuz.

### Salerosketak

• Mutilentzako jaunartzeko jantzi berriak eta oso prezio onean saltzen ditut, 60 eurotik aurrera. Tel.: 688.667982.

• Orbea markako bizikleta salgai; Gurrupilak "kisyrium elite"; Biela "simano 105"; beste osagaiak "ultegra"; Horkilla eta eserlekuaren tija karbonozkoa. Neurria: 51. Prezioa: 700 euro. Tel.: 605763341 (Iñaki)

• Auto bat daukat salgai. Suzuki Vitara 1900 markakoa. Diesela, 1999koa, 178.000 kilometro eginak. Deskapotablea, aluminiozko llantak eta defentsa. Okasiokoa. Deitu 616 333 017 edo 666 116 333 telefono zenbakira.

• Bizikleta urdina salgai. Monty markakoa, 5-9 urteko haurrentzat. Bikain dago, ez du inongo akatsik. 60 euro bizikletaren truke, eta haurrentzako bi txirrindulari jantzi oparitan. Deitu 627 358 898 telefono zenbakira.

### Lan-eskaintzak

• Pertsona bat behar dugu ume txiki bat zaintzeko Lasarte-Orian, astelehenerik ostegunera 17:30tik 19:30ra. Harremanetarako zenbakia: 699 243 108

### Lan-eskariak

• Ingelesko klase partikularrak ematen ditut. Telf: 639 60 12 22

• Pertsona adinduk eta gaixok zainduko nituzke. Pertsona esperientziaduna eta tratu onekoa. Harremanetarako zenbakia, 680 983 527 (Carlos)

### Bestelakoak

• Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Interesatua bazaudete maketa bat entzungai daukat. Harremanetarako zenbakia, 690 784 113.

### Oharrak jartzeko:

Tel.: 943 366858  
Geltoki kalea 4  
txintxarri@ttakun.com  
www.txintxarri.info  
www.txintxarri.iragarkilaburak.com

Oharrak Txintxarrin agertzeko asteazken eguerdirako helarazi behar dira bertara. Irargari laburren ataldea agertzeko (papereko edizioan) astearte goizerako.

## Gazte Informaziorako Bulegoa

Manuel Lekuona kulturetxea • Tel.: 943 376181

### Delineatzaile bat Hernaniko udalerako

Hernaniko Udalean delineante-lanpostua oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdia. Bete beharrekoak: eraikuntza-delineantea edota Eraikuntza proiektuen garapena eta aplikazioko LH2 titulua; 3 HE edo baliokidea. Horretarako azken

eguna: 20 egun natural BOEn argitaratzen denetik. Informazio gehiago: Hernaniko Udala, Gudarioren enparantza, 1; tel.: 943 337000; erregistroa@hernani.net; web orria: https://ssi4.gipuzkoa.net/eusker/gao/2009/03/05/e0902597.htm. Iturria: 2009-03-05eko 43. GAO, 7422. or.

## Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala  
Euskarako Batzordea



Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkarteak, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: S5513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.300 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com. Txintxarri ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

# Loidi Barrengo etxebizitzaren eraikuntza atzeratu egingo da

■ Aurrekontuen Batzorde Bereziko kideak ere jakitera eman ziren plenoan

## TXINTXARRI

Udalbatzarrak atzo egindako ohiko bilkuran Ana Urchuegia alkateak alkatetzako hainbat gai azaldu zituen eta, horien artean, Loidi Barrengo babes ofizialeko etxebizitzaren eraikuntzari buruz mintzo zen.

Alkateak jakin arazi zuen krisiagatik atzeratua izango dela, "proiektua esleitu genuenean egoera ekonomikoa desberdina zen. Egun bankuek ez dituzte kredituak nola nahi ematen, iazko irailean edo urrian eskatua egon arren."

"2008an obren lehiaketa egin genuenean, proposamen bakarra iritsi zitzaigun eta orain akordioa batera iristeko asmoa dugu, babes ofizialeko etxeak egiteko. Akordioa lortu ostean, hirigintza batzordean eztabaidatuko da eta, azkenik, Udalbatzarrean bozkatu behar da aurrera jarraitu edo ez," azaldu zuen Ana Urchuegiak eta honela jarraitu zuen, "nireraz eta bloke sozialistarentzat lehendabizi etxebizitzak dira, gero garajeak eta azkenik, merkatal gunea."



Lasarte-Oriako Udalak Loidi Barrengo babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeko asmoa azaldu zuen Udalbatzarrean.

### Batzorde bereziko kideak

Honetaz gain, Aurrekontuak Aztertzeko eta Kontrolatzeko Batzorde bereziko kideak ezaugarri zituzten.

Honetan Udalbatzarreko alderdien ordezkariak honela banatu da, PSEEtik Ana Urchuegiak, Iñaki Mugika eta Lourdes Acevedo izango ditu

batzordean, EAJ-PNVk Estitxu Alkorta, J. A. Encinas izango da PPko ordezkaria, EBkoa Rikardo Ortega izango da, adskribitu gabeko hiru zinegotziak eta LOHPko Ana Isabel Prieto.

### Kreditu aldaketa

Era berean, astehelenean ez

ohiko bilkura egin zen. Bertan, kreditu gehiagarrien bidez kredituak aldatzeko dosierra onetsi zen, PPren aurkako bozka eta EAJ-PNVren abstentzioaren ostean.

Aldaketa honek gizarte zerbitzuetarako langile berri baten kontratazioa ahalbidetzen du. •

## AÑARBEKO URAK

### Lasarte-Oriako proiektuen idazkera bere gain

2009an zehar azpiegitura hidraulikoaren proiektuak idazteko eskaerak egiteko deialdiari dagokionez, Añarbeko Uren Mankomunitateak Lasarte-Oriako Udalak eskatutako proiektuen idazketa guztiak bere gain hartuko ditu.

Udalak egindako eskaerak bi ziren. Batetik, Oria etorbideko Antxisu bailara hornitzen duen hodiaren konponketa eta, bestetik, Belartzatik iriten den hornidura-sarean obra osagarriak egitea, Gureako tailerretik hasi eta Illaraltzueta bideko burdinurtuzko tutuen sareraino fibrozementuzko sarea ordezkatea.

Bi proiektuak bakar batean jaso dira, *Lasarte-Oriako Oria etorbideko eta Illaraltzueta bideko hornidura-sareen berritzea* deiturikoa, eta 12.000 euroko aurrekontua izango du.

Aurrekontuak jartzen dituen mugen baitan, orain idatziko den proiektuak ekarriko dituen obren gautzatea gutxi gorabehera 240.000 euroko kostua izango du, eta zurrerik Añarbeko Uren Mankomunitateak 2010eko Obra eta Inbertsioen Egitasmoan sartuko da. •

## Biliyin estiloa eta bluesa Lasarte-Orian entzungai

*The Billie Jeans* taldea jendea dantzan jartzeko asmoarekin elkartu zen 2007an. Funk, reggae, rock, musika beltza eta soularen eritmo eta doinuak nahasirik, musika estilo berria sortu zuten, *biliyina*, eta hau taldearen ardatz bihurtu da.

Gaur Udala eta Xpression kultur elkartearen hitzarmenari esker, Manuel Lekuona kultur etxeke kafetegian, arratsaldeko 20:00etan, zuzenean entzun ahalko ditugu talde honen doinu eta estilo bereziak.

### Belceblues

Baina horiek ez dira gaur herrian entzungo den musika doinuen erantzule bakarrak izango. Jalgi kafe antzokian, 22:00etan, *Belceblues* taldearen emanaldia izango baita.

Bluesa oinarritzat hartuta, soinu indartsuagoak eta ahotzak lantzen dituen taldea da *BelceBlues*. Musika beltza eta zuriaren ezaugarriak nahasten dituela esan daiteke.

Zuzenekoetan, euskara eta ingelesa uztartzen dituzte kantueta eta gustukoaren dituzten blues estandarren

moldaketak taularatzen dituzte, besteak beste, Steve Ray Vaughan, Jimmy Hendrix edo Jeff Healey.

### Infer diskoa

Honetaz gain, kalean da taldearen lehen diskoa *Infer*, gaur gauean Lasarte-Orian aurkeztuko dutena.

Gainera, diskoari izena ematen dion kantua, XIII. Musika Sarietarako, Urteko Euskal Kantarik onenaren kategorian lehiatzeko izendatu du Espainiako Arte eta Musika Zientzien Akademiak. •



## Handitan zer izan nahi duzu?

Galdera honi erantzunez sortzen da Manuel Lekuona kultur etxean bihar 18:00etan ikusi ahalko den antzezlan, *Handitan*.

Neska-mutil eta familiari zuzenduriko antzerki lan hau jolas modura planteatuta dago. Batez ere, neska mutilak hain gogoko duten jokoa: handitan zer izango direnaren jokoan, eta helduen mundua beren ikuspegitik joratzaren jokoan.

Jolasa da historia honen ardatza, baina bertso, musika,

abesti, eta ipuinek ere badute bere txokoa.

Hiru aktore dira, bakoitza bere izaera zoroarekin, eta hauen eskutik ordu beteko saioan murgilduko dira haurrak, bakoitzak zer izan nahi duen jakiten, ikusten, asmatzen edo irudikatzen duten bitartean.

Baina hiru lagun hauek, hain ezberdinak izanik, badute hautsi ezin den lotura dute: adiskide izatearena. Eta balore honetan oinarrituta, garatuko dute bere portaera. •



*Biliyin* doinuak entzuteko aukera egongo da kultur etxeke kafetegian eta *Belceblues*ek *Infer* diskoa aurkeztuko du Jalgin

# Lan mundua euskalduntzen

■ Buruntzaldeko Udalek laguntza ematen dute enpresetan euskara plangintzak abian jartzeko ■ TSST Donostia-Tolosa tranbia enpresak hitzarmena sinatu du Udalarekin

Buruntzaldeko hiru enpresek euskara plangintza martxan jarriko dutela eta, enpresa horietako ordezkariak aurreko astelehenean hitzarmena sinatu zuten

Hernani, Urbieta eta Lasarte-Oriako alkateekin, Udal hauetan lan horretan laguntzeko dituzten baliabideak beren eskura jartzeko. Hernaniko Udaletxean egin

zen ekitaldian izan ziren besteak beste, Iñaki Mugica Lasarte-Oriako alkateordea eta T.S.S.T Donostia-Tolosa Tranbia hiri-bus enpresako Santiago Sarasola ordezkaria.

Jon ALTUNA

Lasarte-Oriako Aduriz enpresak eta TSST konpainiak daukate euskara plana. Azken honetako ordezkariak aurreko astelehenean sinatu zuten Udalarekin honen laguntza jasotzeko hitzarmena. Iñaki Múgica Lasarte-Oriako alkateordeak hitzarmenaren aurretik adierazi zuenez, Udalek nahi dutena eskualdeko enpresak ahalik eta kalitate eta lehiakortasun handienekoak izatea da eta horregatik hasi ziren euskara planen sustapen lana egiten: hau da, enpresa batzuk aukeratu eta bisitatu, euskara plana zer den azaltzeko eta euskara plana egitera animatzeko. Hitzarmenaren helburua horixe da, beraz, enpresei laguntzea euskara plana egiten abia daitezene: "enpresari planak sortuko dion gastuari aurre egiteko dirulaguntzak ematen dituzte Udalek eta dirulaguntza hori bideratzeko hitzarmena sinatzen dute Udalaren eta enpresaren artean".

Diru laguntza Eusko Jaurlaritzak LanHitz programaren bidez ematen duenaren osagarria da. Lehen urtean enpresak izan dezakeen gastuaren 2/3 erakunde publikoan dirulaguntzekin finantzatzea da helburua. Beste herena enpresaren gain geratuko da eta bigarren urtean aurrera LanHitz programaren bidez finantzatzen da euskara plana.

Bukatzeko Iñaki Mugicak eskerrak eman zien mahaian ziren enpresa-ordezkariak. Hauen artean Santiago Sarasola Lasarte-Oriako T.S.S.T. konpainiak ordezkariak euren esperientziaren berri eman zuten, zerbituzko enpresa izanik, eguneroko bezeroekin, herritarrekin alegia, oso hurbiletik lan egiten dutela aipatuz: "jakin badakigu, horien arteko euskaldunen kopurua kontuan hartzeko dela, eta nabarmen handitu dela, gainera, azken urteotan". Zerbitzuaren kalitatea hobetzen eta horretarako egokiak diren neurriak hartzen saiatzen direla esan zuen: "Gure bezeroei zerbitzurik hoberena eskaintzea da gure helburu nagusienetako bat, eta euskararen ezagutzak



Hernani, Urnieta eta Lasarte-Oriako hitzarmenak sinatu ziren astelehenean Hernaniko Udaletxean.



Iñaki Mugica eta Santiago Sarasola hitzarmena sinatzeko unean.

gora egin duenez, ezinbestekotzat jo dugu aldagai hori ere kontuan izatea hemendik aurrera". Beraz, euskara plangintza abian jarriko dute.

Sinatze ekitaldian Marian Beitialarrangoitia, Hernaniko alkateak azaldu zuenez "euskararen normalizaziorako garrantzitsua da lan mundua eta Udala euskara normalizatzen egiten ari den ahaleginaren baitan kokatzen da lan munduan ere euskararen normalizazioa-

ren aldeko pausoak ematea".

Bere ustez "neurri batean, euskararen normalizaziorako klabeetako bat da lan mundua euskalduntzearena" eta zerbait arrazoi eman zituen. Batetik, gure eskualdeko belaunaldi gazteek "zorionez" ikasketak euskaraz egiteko aukera izan dutenez, lan mundurako jauzia ematen dutenean, euskara oso arrunta dute eta euskaraz lan egitea da eskaini behar zaiena. "Horretarako lan bat egin

dago, ez gara zerotik hasten, baina bada zertan sakondu, enpresa edo lantegietan euskaraz aritu daitezene". Horretarako prestatuta izatea inportantea dela esan zuen Marian Beitialarrangoitiak.

Bestalde, aski frogatua da bere iritziz euskaraz lana ere egin daitekeela eta beraz garrantzitsua da edonork dituen baliabide eta aukerak praktikan jartzea. Gainera gaur egungo gizartearen gero eta beharrezkoagoa da hizkuntza bat baino gehiago erabiltzea, hizkuntzak kudeatzeko moduak eta irizpideak ezartzea. Enpresetan hizkuntzen kudeaketa egokiak eta euskara planak enpresaren "kalitatea" laguntzen duela uste du Hernaniko alkateak.

## Urrats sendoak

Azkenik Beitialarrangoitiak adierazi zuen Udala bera ere enpresatzat hartu daitekeela eta beraz Udal barnean euskaraz lan egiteko neurriak hartzea oso garrantzitsua dela uste du. Guretzat eronka garrantzitsua izan da euskaraz bizitzea: "Eta zalantzarik ez da bide horretan urrats sendoak egiteko ardura handia dugula Udalok. Gure lana eta zerbitzua kalitatezkoak izango dira hizkuntza irizpide egokiak hartu eta betetzen ditugun neurrian".

Beitialarrangoitiak Buruntzaldeko Udal guztien izenean esan zuenez "asmo sendoa

dugu eskualdeko enpresetan euskara planak abian jartzeko gure eskuetan den laguntza emateko, bai sustapen lana bultzatuz eta bai dirulaguntzen lerroari eutsiz".

Ondoren Mikel Izagirre Urnieta alkateak enpresatxo plangintzen historia laburra egin zuen: "Buruntzaldeko udalak 2005ean hasi ginen enpresetan euskara planak sustatzen. Terreno landu gabea zen hura, eskualdean ez zegoen apenas enpresarik euskara modu planifikatuan lantzen ari zenik. Ez dut esango inork ezer egina ez zuenik, ez da-eta horrela. Enpresa batean baino gehiagotan bazegoen euskararen aldeko sentsibilitaterik eta saiakera batzuk, handiagoak edo txikiagoak, eginak zituzten hainbat tokitan. Eta saiakera horiek ekarri dute, ziurrenik, ondoren beste indar eta sendotasun batekin heltzea gai honi udalotatik ere. Aitzindariak edo pioneroak izan ziren haien lana eskertuta eta aitortuta, beraz, bai azpimarratu nahi dut Udalan sustapen lanak tarteko, 13 plan ditugula orain Buruntzaldean".

## 13 enpresa eskualdean

Lasarte-Oriako Aduriz eta T.S.S.T., Usurbilen, Berriola, Luzuriaga eta Izagirre, Hernanin, Selac, Hator eta AMR, Andoain Latz eta Mondragón Sistemas de Información, Astigarragan Tximela eta Urnieta Deman dira 13 enpresa horiek, era askotakoak, produkzio-enpresak, zerbituzkoak; tamaina oso ezberdinekoak (badira 10 langilekoak eta badira 100 langilekoak ere); langile euskaldun gehiago edo gutxiago dituztenak... eta hizkuntza aldetik ere behar eta egoera oso ezberdinekoak.

Aurkezpenean parte hartu zuten Xabier Elizegi, Urnieta Deman enpresaren ordezkariak, Santiago Sarasola, Lasarte-Oriako T.S.S.T. enpresaren ordezkariak eta Mikel Ruiz, Hernaniko AMR Refractorios enpresaren ordezkariak, Mikel Izagirre, Iñaki Múgica, Marian Beitialarrangoitia hurrenez hurren, Urnieta, Lasarte-Oria eta Hernaniko alkateekin batera. •

# Oinatzek Bortzirietara irteera prestatu du

■ Etxalarreko usategiak eta hilarriak, San Juan Xarreko ermita eta iturria, eta Lesakako arkitektura ezagutzera doaz Oinatz taldeko kideak, martxoaren 29an

Oinatz taldea Nafarroa aldera doa berriro ere. Martxoaren 29an hain gertu dagoen eta han gutxi ezagutzen den Bortzirien eskualdera doa taldea bertako usadio eta arkitektura ezagutzera, Etxalarko usategiak edo Lesakako herria, beste toki batzuen artean, bisitatuko dituzte eskualde honetan.

## TXINTXARRI

Oinatzeko kideek jakin arazi digutenez, Etxalarki ospea eman dion zerbait badago, usategiak dira. Nahiz eta Estatu osoan galdu eta debek atua izan zen ehiza mota izan, mendez mendez ohiturari eutsi dio Etxalarren. Ehiza mota zahar hau XV. mendean hasi zen eta honetan nagusi dira trepa izeneko dorre hankaluzeak. Usategiak Larrun eta Arxuria mendien arteko lepoan ikus daitezke, Etxalar eta Sara herrien artean.

Ehiza garaian, urrian eta azaroan, Europatik datozen usoak hegoalderantz doazenean, usozaleek zurezko paleten itxura duten makilak botatzen dituzte airerantz. Hauek hegazti harraparien hegaldia irudikatzen dute eta, orduan, usok beherantz jo eta zuzenean sareetan korapilatzen dira.

Honetaz gain, Etxalarko herri arkitektura ere azpimarratzekoa dela aipatu digute Oinatzekoek. XV. mendetik XVII. mende artean eraikitako etxe ugari ikusi daitezke herriko kaleetan zehar ibiltzean. Etxe handiak dira hauek, silarriz egindakoak eta zurezko balkoiak dituztenak. Hauen artean, Erdi Aroko dorre bat nabarmendu daiteke, Gaztelua, erresumako arma-etxea izandakoa.

Eta ez dira ahaztu behar Jasokunde elizan dauden hilarriak. Kanposantu zaharreko arrastoak dira, XVI. mendetik

aitzinerara landutako disko itxurakoak.

## San Juan Xarreko elezaharra

Baina hau ez da Bortzirietan egingo duten bisita bakarra, San Juan Xar eta Lesakara ere hurbilduko baitira Oinatz taldeko kideak.

Arantza eta Igantzi arteko mugan, San Juan Xar Erretserba Naturala dago. Hau garai batean Europan oso zabaldua zegoen baso motaren aztarna edo erlikia da. Iberiar penintsula osoan San Juan Xarren bakarrik sortzen da pago-lizarrak (*carpinus betulus*). Hortaz, zuhaitz hori babesteko, ingurune hau Natura Erretserba izendatu zuten 1987an.

Eta bertan dago San Juan Bautistaren ermita. Mirespen handiko lekua da. San Juan Xar erromeriak, meza eta iturriaren errietoak, inguru eta urrutiko hainbat jende erakartzen ditu. Herri sinismenaren arabera, San Juan iturriaren hiru ahoetatik edan behar da ura, eta uretan bustitako zapi batez kaltetutako gorputz-zati igurtzi, gero zapia ondoko harkaitzetan utziko da. Hala sendatuko dira digestio-arazokak eta azaleko gaitzak. Azkernean, kandela piztu beharko zaioa santuari.

## Lesaka

Eta azkenik, Lesaka dugu. Lesaka gutxi aldatu da denbora gutxian, nekazari- eta baserri-herri izatetik inguruko industria-gune garrantzitsuetanokora izatera igaro da.



Oinatz taldeak Arotz, Markina eta Arano aldera egin zituen aurreko irteerak.

Hala ere, honek ez dio batera kendu antzinako xarma. XVIII. mendekoak diren ola, irinerrota, sagardoa egiteko lantoki edota zenbait zurgindegi mantendu dira. Hauek herritarrentzako lan toki izan dira eta hala nabarmetzen da bertako eraikin dotore anitzetan.

Lesaka Tourseko San Mar-

tin parrokia elizak babestua da. Muino baten gainean tente, Nafarroako eliza monumentalena da; bertan gotikoki eta barrokoak bat egiten dute katedral tamainako erlijio arkitekturaren adibide bikaina sortuz.

Era berean, Lesakako herria historiaren igarotzearen lekuko

da. Leihu eta ate gotikoak dira herriko karrika harriztatuetako etxe-aurrealdean apaingarri. Baina, dudarik gabe, herriko ezaugarri den irudia, ibairen gaineko harrizko zubia da, eta honen ondoan dagoen Kasherna edo Zabaleta dorrea, harri landuzko XV. mendeko dorre-etxe ederra. Herrian barrena hainbat leinu-dorre aurkitzen dira eta hauetako bat, Minyurirena, Lesakako eraikin zaharrena da, XIV. mendean eraikia izan zela uste baita.

Herri honetako beste berezitasuna, uztailearen 7an, San Fermin egunean egiten den Zubigaineko dantza da. Prozesioa bukatu ondoren, Eskol Tikira jaisten dira lesakarrak, eta, han, Onin ibaiaren ertzean, XV. mendean Lesakako auzoek sinaturiko bake-itunaren oroi-garri, Zubigainekoa dantzatzen da.

## Txangoa

Oinatz taldeak jakin arazi digunez, goizean 9:00etan aterako da autobusa taxi geltokitik. Lizarreta gainera iritsi eta mendi buelta egingo da usategiak ikusi eta ehiza mota hau ezagutzeko. 12:30ak aldera, Etxalarren bazkalduko da, bakoitzak etxetik eramandakoa. Bazkal ostean, San Juan Xarrera egingo dute ermitako elezaharra ezagutzeko eta, azkenik, Lesakako bisita gidatuaz gozatzeko aukera izango du taldeak.

## Txartelak

Bortzirien eskualdera egingo den txangorako autobus txartelak erosi beharko dira. Hauek Ttakuneko bulegoan egongo dira eskuragarri martxoak 25era arte.

Eta txangoari buruz gehiago jakin nahiez gero, 943 371 448 telefonoz zerbakira deitu dezakezue. •

- RAZIOAK
- PLATER KONBINATUAK
- PINTXOAK
- BOKATAK
- SANDWICHAK
- ETXEKO POSTREAK
- GOSARIAK

## EGUNEKO MENUA

KALE NAGUSIA 67 • Lasarte-Oria



**Jalai**  
cafe bar

Kalitatea eta prezio onena  
leku berean

TEL.: 943 372760

# Garazi Gómez eta Miren Altuna Lokeko gimnastak Gipuzkoako txapelketan

■ Igande goizean jokatuko da Astigarragan  
 ■ Udaberriko sariketan herrikoak hirugarren

Gimnasia erritmikoa egiten duten herriko kirolariak denboraldiaren muinean dira eta aste honetan kadete mailako bi gimnasta Gipuzkoako txapelketan arituko dira mazoan sailean: Garazi Gómez eta Miren Altuna. Bestalde, aurreko astean Udaberri Sariketako proba jokatu zen Hernanin eta Lasarte-Oriako gimnastei dagokionez haurren mailako uztaien saileko boskotea hirugarrena izan zen.

Garazi Gómez eta Miren Altunak igande goizean dute mazoekin Gipuzkoako Txapelketako finalean sartzeko aukera. Astigarragako polikroldegian burutuko den kanporaketan lehen zortzien barruan izan beharko dira Gipuzkoako bakarkako finalean sartzeko. Maite Rueda prestatzailearen ustez, batez ere Garazi Gomezek aukera

du kadete mailako finalean izateko. Guztira hogei gimnastatik gora izango dira kanporaketan eta puntuaketa altuena duten zortzi gimnasta pasatuko dira finalera.

## Udaberri saria

Bestalde, aurreko astean Udaberri Sariketako lehen faseko proba burutu zen Hernaniko kiroldegian. Lasarte-Oriako bi taldek parte hartu zuten. Bost uztairekin aritzen den haurren mailako taldeak izan zuten emaitzarik onena. Hirugarren lekuan sailkatu ziren.

Hasiberrien mailan esku libre eta pilota modalitatean aritzen den taldeak aldiz lehen postuetatik urruti xamar bukatu zuen, hamaikagarrenak izan ziren. Ekaina bitartean gimnasia erritmikoko herriko taldeak hainbat probatan parte hartuko du. •



**Lehendakari txapelketaren lehen tirada Lasarte-Orian** - Mitxelinen Udal Kirol Guneko bolatokia hasi da aurtengo bola jokoko Lehendakari txapelketa. Aurreko igande goizean Gipuzkoa osoko 52 bolarik parte hartu zuen estrenaldian. Probaren buruan berdinketa izan zen bost bolariren artean 47 birlarekin eta beste jaurtiketa extra bat behar izan zuten berdinketa hausteko. Azkenean Urrietako J. A. Belaunzaran gailendu zen, bigarren Hernaniko Elur-txori taldeko J. Goenaga izan zen, hirugarren Hernaniko M. Arrozpide, laugarren Urrietako M. Lizeaga eta bosgarren Segurako M. Agirre. Ostadar taldekoak erdipurdi ibili ziren etxeko tiraldian: Inaxio Otaegi 46 birla bota zituen, Mikel Arroyok 45 eta Juan Luis Lozanok 44. Igande honetan emaitza hobetzeko aukera izango dute Olaberriaren egingo dituzten jaurtiketetan. •

## Kiroletako agenda

### ■ FUTBOLA ■

#### Larunbata 14

**10:30ean**, Ostadar-Ilintxa (Emakumezkoen KDT F-II, txapeladunen fasea) Michelinen.

**14:00etan**, Ostadar-Eibar (Kadeteen Ohorezko maila, kopa) Michelinen.

**15:30ean**, Ostadar-Kostkas M.B. (I. Erregionala, igoera fasea) Michelinen.

**17:15ean**, Texas Lasartearra-Urki (II. Erregionala, kopa) Michelinen.

**11:00etan**, Behobia-Ostadar (Infantilen Ohorezko maila, kopa) Artia, Irunen.

**11:30ean**, Bergara-Ostadar (Infantil Txiki Kopa) Ipintza, Bergaran.

**15:30ean**, Touring-Ostadar (Emakumezkoen Liga, igoera fasea) Fanderia, Oretetan.

#### Igandea 15

**10:30ean**, Texas Lasartearra-Segura Goierri (I. Jubenila, kopa) Michelinen.

**10:30ean**, Euskalduna-Ostadar (Alebinak, txapeladunen fasea) Alluralde, Andoainen.

**14:00etan**, Luberri-Ostadar (I. Jubenila, igoera fasea) Berio, Donostian.

### ■ FUTBOLA 8 ■

#### Larunbata 14

**09:15ean**, Soraluze-Lasarte BHI (Eskolarteko infantilak) Ezozia, Soraluzen.

### ■ FUTBOLA 7 ■

#### Larunbata 14

**21:15ean**, Cocinas Urarte-Niasa-Corpa (III. Maila) Matigoxotegi, Donostian.

### ■ ARETO-FUTBOLA ■

#### Larunbata 14

**17:45ean**, Aldaz H.K.-Kanikas Infracoman (Euskal Liga) Kiroldegian.

**16:30ean**, Anoetako Gazte Asanblada-ISU Leihoak (Gipuzkoako Liga, I. Maila) Anoetako kiroldegian, Anoetan.

### HERRIKO TXAPELKETA Michelin edo frontoian

**9:10ean**, Morrison-Biyona

**10:00etan**, Lurra XXI-Biyona

**10:50ean**, Ainhua-Danena

**11:40ean**, Morrison-Izkiña

**12:30ean**, Mayi-Siglo XX

**13:20ean**, Katanga-ISU Leihoak

**14:10ean**, Tragoxka-Buenetxea

**15:00ean**, Obelix-Jordi

**15:00ean**, Danena-Lurra XXI

#### Igandea 15

HERRIKO TXAPELKETA Michelin edo moduloan

**10:00etan**, Okela-Izarra

**10:50ean**, IOB H.K.-Oria kirst.

**11:40ean**, Viña-Illargi

### ■ SASKIBALOA ■

#### Larunbata 14

**16:00etan**, Ainhua-Katu kale (Gizonezko seniorrak) Kiroldegian.

### ■ PILOTA ■

#### Larunbata 7

**11:30ean**, Zumaia-Intza (Eskuz binaka II. Seniorra) Zestoan.

**16:00etan**, Intza 3-Hernani 3 (Eskuz binaka, infantilak) Astigarragan.

### ■ PALA ■

#### Larunbata 14

XV. PALA TXAPELKETA

Michelingo frontoian

**15:00etan**, Imanol Muxika eta

Unai Salaberria-Fran Ariztimuño eta Edu Jauregi

#### Igandea 15

XV. PALA TXAPELKETA

Michelingo frontoian

**09:15ean**, Mikel Begiristain eta

Jon Begiristain-Oskar Lazkano eta

lño Arluziaga

**10:00etan**, Bernaitz Odriozola eta Santi Martín-Iñaki Lizaso eta Alain Etxebeste

**10:30etan**, Imanol Bardaji eta Agustín Zubizarreta-X.Etxezarreta eta Haritz Urdanpilleta

**11:15ean**, Jon Arostegi eta Eneko Iradi-Josu Iparragirre eta Aitor Matxain

### ■ IGERIKETA ■

#### Larunbata 14

**Egun osoa**, Buruntzaldeko igerilariek eta Hernani Igeri Taldeko Amaia Amiano eta Miren Bardaji lasarteoriatarrek junior, promesa eta absolutu mailako Euskal Herriko neguko txapelketa dute Usabal kiroldegian, Tolosan.

#### Igandea 15

**Egun osoa**, Buruntzaldeko igerilariek eta Hernani Igeri Taldeko Amaia Amiano eta Miren Bardaji lasarteoriatarrek junior, promesa eta absolutu mailako Euskal Herriko neguko txapelketa dute Usabal kiroldegian, Tolosan.

### ■ BOLA-JOKOA ■

#### Igandea 15

**10:00etan**, Ostadarreko bolo sailak Lehendakari txapelketan parte hartuko du, Olaberriaren.

### ■ JUDO ■

#### Larunbata 14

**Goizean**, LOKEko Amaia Curiel, Leire Zubizarreta, Esteban Martinez eta Mario Garrido kadete mailako Euskadiko txapelketan lehiatuko dira, Gasteizen.

**Arratsaldean**, Beñat Elizalde 23 urte azpiko Euskadiko txapelketan lehiatuko da, Gasteizen.

#### Igandea 15

**Goizean**, LOKEko alebinek Gipuzkoako taldekako txapelketa dute, Zarautzen.

### ■ ATLETISMO ■

#### Larunbata 14

**Egun osoa**, (Kadeteak neskak) Zaragozaan.

LOKEko Leire Amiano eta Eneiritz Imazek Bidasoa Atletiko taldearekin parte hartuko dute Espainiako kadete taldeen I. Kapan.

### ■ GIMNASIA ERRITMIKOA ■

#### Igandea 15

**Goizean**, Garazi Gomez eta Miren Altuna LOKEko gimnastak Eskolarteko B txapelketako bigarren fasean parte hartuko dute mazoekin lan eginaz, Astigarragan.

Egunero

**Erakusketa**

ANGEL NÚÑEZ donostiarraren Paisaia begiralea argazki erakusketa ikusgai egongo da. Jalgi kafe-antzokian, egun osoan.



Ostirala, 13

**Kontzertua**

THE BILLIE JEANS taldearen kontzertua Udaleko Gazteria Sailak eta Xpression zirkuituak antolatuta. Kulturetxeko kafe-tegian, 20:00etan.

Larunbata, 14

**Antzerkia**

HANDITAN lana eskainiko du Glu glu taldeak. 5 urtetik gorako haurrentzako emanaldia izango da. Sarrera, 3,15 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etan, EUSKARAZ



Igandea, 15

**Zinea**

EL LINCE PERDIDO filma eskainiko dute haurrentzako zinea atalean. Sarrera, 3,15 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 17:00etan.

*Musika beltza eta zuriaren nahasketa Jalgin gaur*

BEJCEBLUES taldea *Infer* disko berria aurkezteko du gaur. Bluesa oinarritzat hartuta, soinu indartsuagoak eta ahotsak lantzen ditu talde honek. Zuzenekoetan, euskara eta ingeleza uztartzen dituzte beren kantuetan, horrez gain, gustuko dituzten blues estandarren moldaketak taularitzen dituzte. Besteak beste, Steve Ray Vaughan, Jimmy Hendrix...

GAUR, JALGI KAFE-ANTZOKIAN  
22:30EAN

Astelehena, 16

**Zine soziala**

LO MEJOR DE MI filmaren ondoren Alcer elkartearen hitzaldia *Gorputz organoen emaitza* gaiatzat hartuta. Danok Kideren V. Zinema Soziala zikloan. Kulturetxean, 17:30ean.

Astelehena, 23

**Zine soziala**

EL DIABLO SE VISTE DE PRADA filma eman eta Acabe elkar-

teak hitzaldia eskainiko du *Anorexia* gaiatzat hartuta. Danok Kide elkarteak antolatutako V. Zinema Soziala zikloaren barruan. Manuel Lekuona kulturetxean, 17:30ean.

Osteguna, 26

**Zinea**

LA OLA filma Okendo Zinema Taldearen eskutik. Sarrera: 4,15 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 21:30ean.

Ostirala, 27

**Kontzertua**

DONOSTIAKO SANTA CECILIA ABESBATZAK kontzertua eskainiko du Danok Kideren IV. Musika Topaketan barruan. Brigitarren komentua, 19:30ean.

Ostirala, 27

**Antzerkia**

OHEAN antzezlanaren Glu glu taldearen esku Korrika kulturalean barruan. Kulturetxean, 22:00etan, EUSKARAZ



Larunbata, 28

**Kontzertua**

AURORA PARRA sopranoak, J. PEREZ DE AZPEITIA pianojolearen laguntzaz, kontzertua eskainiko du. Kulturetxean, 20:00etan.

Igandea, 29

**Zinea**

WINX: ERREINU GALDUAREN SEKRETUA filma eskainiko da haurrentzako zinea atalean. Sarrera, 3,15 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 17:00etan, EUSKARAZ



**Eskutitzak**

**Oria, 2. mailako herritarrek**

Argindar enpresa nagusiak, Oria aldean bere hornidura sareak hobetzeko lanak egiteko, ematen duen hornidura moztu zuen lehengo astean, honek arazorik sortuko ez zuela aginduaz.

Harrituak geratu ginen, Antxisu auzoan, gure etxebizitzaren alboan, argindarra sortzeko gasolioko ekipoa jarri zituztela ikustean eta lanak iraun bitartean, 5 egun, bertan egongo zirela jakitean.

Gauzak okertzen joan ziren motore-tako zarata, kea eta sortzen zuten usaina sumatzean. Hau guztiaz gain, argindar mozketaren ugari pairatu genituen.

Orain auzotarrok zalantza bat dauka, horrelako "konponketak" herri erdi aldean era berdinean egingo al lirarteke? Agian auzo txiki bat izateagatik, egin dituzte horrela.

La Esperanza auzo elkarteak

**Oharrak**

**Autobusa AC-DCren kontzertua**

AC-DC taldeak, martxoak 31 asteartea, Bartzelonan eskainiko duen kontzertura joateko autobusa antolatu da. Oraindik ez dago irteera lekua zehaztua, baina Donostia edo inguruko herri batean izango litzateke. Autobusa goizeko 9:00etan aterako da Bartzelonarantz eta kontzertu, ostean, bueltatuko da. Joan-etorria 50 euro dira eta eserleku kopurua mugatua da. Bidaiaren berri gehiago jakiteko bus\_acdc@hotmail.com helbide elektronikora bidali mezuaz.



**Korrika 16**

Badator Korrika 16a, apirilaren 2an helduko da Lasarte-Oriara eta jada ia dena prest dute aek-n. Batetik, nahi duen guztiak Km-a lor dezake laguntza baten truk. Interesa duzuen talde, erakunde edo besteren batek Muntteri AEK euskaltegira deitu 943 37 28 63 edo bertara jo dezake.

**Arropa salgai**

Bestalde, motorrak berotzen hasi dira jada korrika antolatzen ari direnak eta asteburuan materiala salgai izango

da: ostiral arratsaldean eta igande goizean Okendo enparantzan KORRIKA 16ko arropen postua jarriko dute aek-koek.



**Marrazki eta pintura klaseak**

Lasarte-Oria Bizilagun elkar-teak jakin arazten du, martxoaren 20 eta 21ean ez dela pintura eta marrazki klaserik egongo Manuel Lekuona Kultur etxea itxia dago eta.

**Kolon minbiziaren proba**

Lasarte-Oriako Osasun Zentroak eta Donostia Ospitaleak doan eskaintzen ari dira kolonoko minbiziaren antzemate goiztiarrerako proba bat 50 eta 69 urte arteko emakume eta gizonezkoen artean. Hauei guztiei probarako gonbidapen pertsonala bidaliko zaie postaz. Udaletik proiektu honetan parte hartzea animatzen zaituztegu, izan ere, garrantzitsua iruditzen zaigu kolonoko minbizia antzemateko eta prebenitzeko.

**Dagokionari**

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkarira. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943-366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz txintxari@ttakun.com helbidera bidaliaz. Gure bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

**Oharrak jartzeko:**

Tel.: 943 366858  
txintxari@ttakun.com

txintxari@txintxari.info  
www.txintxari.info

# Herriaren historia argazkiz argazki bildu dute liburu batean

*Lasarte-Oria, herri baten unea* lanak 400 irudi zaharretik gora bildu ditu

**TXINTXARRI**

Lasarte-Oriako eta lasarteoriatarren 400 argazki historikotik gora biltzen dituen liburua aurkeztu zuten atzo arratsaldean. *Noticias de Gipuzkoa* egunkariaren ekimenez sortu dute *Lasarte-Oria, herri baten unea* izeneko argitalpen hau. Euskaraz nahiz gaztelaniaz idatzita dago, eta askotariko irudiak bildu dituzte bertan, azalpenak ematen dituzten testu laburrek lagunduta.

Ikusmin handia piztu zuen atzo kultur etxean egindako aurkezpenak. Izan ere, bertan 400 argazkitik gora egonda eta gehientsuenak herritarrek berek emandakoak izaki, jende askok jarri du bere alea liburuak argia ikus zezan. Gainera, liburua ez ezik, Lasarte-Oriari buruzko bideo emanaldia eskaini zuten aurkezpenean. Bertan, herriko lehengo eta gaur egungo hainbat argazki pare alderatu

zizuten, herria zenbateraino aldatu den nabarmendu nahian.

Liburua bederatzita ataletan dago bereizita: lasarteoriatarak, ofizioak, eskola garaiak, Hipodromoa, kirola, jaiak, erlijioa, postalak eta komunikabideak. 50eko hamarkadan Santa Barbara elkarteak egindako mendi martxetako argazkiak, 60ko hamarkadako Azkorteako erromeriakoak, Oria ikastetxeko 50eko hamarkadako ikasleenak, industriak, auto lasterketak, Hipodromoan egindako hamaika ekitaldi, San Pedro jaiak, prozesioak... Askotariko argazkiak daude ikusgai liburuan.

Herritarren borondate onari esker osatu dute bilduma, eta herritar horien guztien artean badira lan bereziki aipagarria egin dutenak ere. Esaterako, Oriako Marisol Ceca eta Manolo Urdanpilleta; haien argazki zaharrak utzi



Pablo Muñoz *Noticias de Gipuzkoa*ko zuzendariak guztien argazkien kutxa gogora ekarri zuen liburua aurkezpenean.

ez ezik, inguruko lagunena biltzeaz arduratu dira bi hauek.

**Egizabalen ekarpena**

Aipamen berezien artean, Jesus Mari Egizabal ere ezin ahaztu. Urdanpilleta eta Cecarekin ez ezik, liburua egileak Danok Kideko hainbat arduradunekin jarri ziren harremanetan laguntza eske, eta hala sartu zen Egizabal proiektuan. "Nik *Lasarte-Oria* aldizkarian idazten dudanez

han erabilitako argazki zaharrak ditut, eta gero gure familiakoak ere bai", azaldu du, alde batetik eta bestetik libururako bildu dituen irudien harira. "Orduan sorta nahiko handia eraman nuen. Baina hor badira argazki dezente eman duten familia batzuk ere", esan du, apal.

*Lasarte-Oria, herri baten unea* argazki liburu bat da, batez ere. Argazkiok azalpenak behar dituzte, ordea, laburrak izanda ere. Sarrera-

txo horiek egitea ere Jesus Mari Egizabali egokitu zitzaion, arduradunek eskatuta. Dokumentazio askoren beharrik gabe, buruz idatzi ditu testu txiki horiek. Herriaren sorrerari buruz, lanpostuak eta horrekin batera populazioa ugartu zuen garapen industrialari buruz, auto zirkuituak, hipika, Lasarteko Krosa, herrira sartu eta atertzen diren errepedeei buruz... Azalpen labur baina argigarririk, liburua borobiltzeko. •



1947an mendizale talde bati Buruntzan ateratako argazkia. Antzeko hainbat argazki daude liburuan.



Haur talde bat Azkorteako Santa Kruz festetan ateratako argazkian.